



Baso-kudeaketa jasangarria
Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?



Koloreztatu Baso-eszena bat

- Helburua :** Jardueraren xedea da ikasleek baso-aprobetxamendu batean dauden elementuak identifikatzea, baso-makineria ezagutzea eta baso-aprobetxamenduen eta landare eta animalia basatien kontserbazioaren arteko bateragarritasuna hautematea.
- Materialak :** Ikasleek elementuak identifikatzeko eta koloreztatzeko marrazki bat duen jarduera-orria daukate.
- Garapena :** Jarduera jarduera-orrian agertzen den baso-aprobetxamenduaren marrazkian dauden elementu desberdinak koloretako zirkuluekin identifikatzean datza. Behin elementuak identifikatuta, gelan kolorezta ditzakete edo etxera eraman, bertan koloreztatzeko.



Baso-kudeaketa jasangarria
Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?

Identifikatu eta koloreztatu

Kolorezta dezagun baso-aprobetxamendu bat!

Proposatzen dizuet marrazkian agertzen diren elementuak zirkuluekin biribiltzea, ordena honetan, eta, gero, koloreztatzea:

1. Moztutako enborrak – zirkulu marroia
2. Erbiak – zirkulu morea
3. Makinetako gidariak – zirkulu arrosa
4. Azeria – zirkulu gorria
5. Autokargagailua, enborrak hartzen eta atzeko partean garraiatzen dituen makina – zirkulu laranja
6. Perretxikoak – zirkulu fuksia
7. Mutila eta neska – zirkulu urdin iluna
8. Motzondoak – zirkulu berde iluna
9. Txoria – zirkulu urdin argia
10. Prozesadorea, enborrak mozten eta adarrak kendu eta zatitzen dituen makina – zirkulu horia
11. Orkatzak – zirkulu grisa
12. Zuhaitzak – zirkulu berde argia
13. Azkonarra – zirkulu beltza



Baso-kudeaketa jasangarria
Zer da Baso-kudeaketa Jasangarria?

